

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN ETA ZARAUZKO UDALAREN ARTEKO HITZARMENA, IÑURRITZAKO BIOTOPOKO MANTENU LANAK KOORDINATZEKO.

Zarautzen, 2015eko maiatzaren 13an

ELKARTU DIRA

Alde batetik,

JON PELI URIGUEN ANSOLA jauna, Gipuzkoako Foru Aldundiko Berrikuntza, Landa Garapeneko eta Turismoko Departamentuko Diputatua, egintza honetarako Gipuzkoako Foru Aldundiaren ordezkari gisa ari dena,

Eta bestetik,


JUAN LUIS ILLARRAMENDI ROTETA jauna, Zarauzko Alkatea, Zarauzko Udalaren ordezkari gisa ari dena,

AZALDU DUTE

I.- Iñurritza eremua babestuta dago. 1997an Eusko Jaurlaritzak, dekretu bidez, Babestutako Biotopo izendatu zuen (40/1997 Dekretua, otsailaren 25ekoa, Iñurritza ingurua Babestutako Biotopo deklaratzeko duena), eta eremu horren erabilera eta kudeaketa araubidea finkatu zituen.

Bestetik, 2004an Europako Batasunak biotopoa eta inguruko eremu zabalagoa Garrantzi Bereziko Leku izendatu zuen, NATURA 2000 sarearen barruan eta ES2120009 Iñurritza kodearekin; gero, 2013an, Eusko Jaurlaritzak Kontserbazio Bereziko Eremu izendatu zuen (215/2012 Dekretua, urriaren 16koa, eskualde biogeografiko atlantikoko hamalau ibai eta estuarioren Kontserbazio Bereziko Eremuak izendatzeko eta kontserbazio-neurriak onartzeko dena).

II.- Iñurritzako babes-eremuaren kudeaketa Gipuzkoako Foru Aldundiari dagokio. Horrela jasota dator 40/1997 Dekretuan (7. artikuluan) eta Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen testu bategina onartu zuen 1/2014 Legegintzako Dekretuan (25. artikuluan).



Dena den, Zarauzko Udalak ere baditu zenbait eskumen eremu horretan; esaterako, eta bereziki, honakoak: landa-bideen kontserbazioa eta zabor bilketa.

III.- Zarauzko Udalak badaki Iñurritzako eremuan herriko eta kanpoko jende asko ibiltzen dela eta aisialdiko erabilerak eta pasabide erabilerak presio handia eragiten dutela. Zaintza-lanen beharra handia da, eta ildo horretan Udala prest dago Gipuzkoako Foru Aldundiarekin elkarlanean aritzeko, eremuaren kudeaketa eraginkorra izan dadin.

Hori guztia ondorengo klausulekin bat etorritz:

KLAUSULAK


LEHENA.- Xedea

Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Zarauzko Udalaren arteko hitzarmen honen xedea da Iñurritzako Biotopoen eta Kontserbazio Bereziko Eremuan mantentze-lanen antolaketa koordinatzeko baldintzak jartzea.

BIGARRENA.- Administrazio bakoitzak bere gain hartuko dituen mantentze-lanak

Zarauzko Udalak:

- Garbiketa-lanak egin araztegia doan errepidean eta Zubiondotik kanalera doan oinezko bidean (bidean bertan eta alde bakoitzean 1 m-ko zabaleran). Paperontziak hustu eta pasarela berriko zaborra bildu.
- Zubiondotik araztegia doan errepide bazterreko belarra moztu.
- Zubiondotik araztegia doan errepideko zoruaren mantentze-lanak egin.
- Eserleku, iturri eta gainontzeko hiri-altzarien mantentze-lanak egin.
- Mollarriko eta bertara joateko bideko zaborra bildu.
- Udaltzaingoak zaintza-lanetan laguntza eman (betiere, GFAko basozainak, ezinbestean, lan hori egitera joan ezin duenean). Udaltzainek arau-haustek antzeman eta urratzaileak identifikatu ahalko dituzte, eta datuak Foru Aldundiari bidaliko dizkiote, hark zigor-espedienteak tramitatu ditzan. Horretarako Foru Aldundiak arau-hausteen zerrenda jakinaraziko dio Udalari, beharrezko zonifikazioarekin, eta lehentasunak markatuko dizkio.
- Biotopoen gertatutako edozein gertakari GFAari jakinarazi.



Gipuzkoako Foru Aldundiak:


- Bide ertzetik kanpoko zaborra bildu (padura, erreka, belazea, dunak, hondar gunea eta abar)
- Belarra moztu, araztegiko errepidean ez gainontzeko leku guztietan (oinezkoen bide nagusia, Mollarriko bideak, belazeak...)
- Mollarriko eta bertara joateko bideko zoru, eskailera-maila eta barandak kontserbatu.
- Informazio-panelak jarri eta mantendu.
- Zubiondotik aurrera errepidearekiko paralelo doan oinezko bidearen zoruaren mantentze-lanak egin.
- Hondartza ertzeko pasabide berriaren mantentze-lanak egin (barandak, sareak, zorua, eskailerak..)
- Iñurritzako zubiaren mantentze-lanak egin (barandak, zorua...)
- Iñurritza inguruan dagoen begiratokiaren mantentze-lanak egin.
- Landare inbaditzaileak kudeatu.
- Landaketa berriak egin.
- Foru basozainek zaintza-lanak egin. Arau-hausteak antzeman eta urratzaileak identifikatu.
- Panelak edo, beharrezkoa izanez gero, itxiturak jarri, erabiltzaileak hondartzako dunen ingurura ez jaisteko bereziki itsasgora denean, eta une puntual horietan basozainen zaintza indartu.
- Zigor-espedienteak kudeatu.

HIRUGARRENA.- Ohiko mantentze-lanak gainditzen dituzten beste kudeaketa-lan batzuk

Hitzarmen honen xede nagusia ohiko mantentze-lanak antolatzea da, eta ez ditu jasotzen lan horiek gainditzen dituzten beste kudeaketa-lan batzuk (urteroko kudeaketa-programa eta aurrekontua eratzea, ikerketa-lanak, golfeko kudeaketa-plana, obra eta proiektu berriak...)

LAUGARRENA.- Jarraipen Batzordea

Alde bakoitzak pertsona arduradunak izendatuko ditu, hitzartutako baldintzen jarraipena egiteko.



BOSGARRENA.- Erantzukizuna hirugarrenen erreklamazioen aurrean

Zarauzko Udalak Foru Aldundiari bideratuko dizkio Iñurritzako Biotopoen eta NATURA 2000 sareko Garrantzi Bereziko Lekuan (ES2120009) orokorrean mantentze-lanekin eta bide, hiri-altzari eta gainontzeko instalazioen mantentze-lanekin lotuta hirugarrenek jartzen dituzten kalte-ordain erreklamazioak, hark aztertu eta txostenak egin ditzan.

SEIGARRENA.- Amaitzeko eta iraungitzeko arrazoiak



Ondorengo arrazoietakoren bat gertatu behar da hitzarmena amaitzeko edo iraungitzeko:

- Bi aldeen artean ados jartzea.
- Aldeek hitzarmenean aurreikusitako betebeharrak eta baldintzak ez betetzea.
- Aldeetako batek hitzarmenari uko egitea. Kasu horretan, alde horrek beste aldeari jakinarazi beharko dio.

ZAZPIGARRENA.- Hitzarmenaren indarraldia

Hitzarmen hau sinatzen den egun berean sartuko da indarrean. Hitzarmenaren epea mugagabea da, eta indarrean jarraituko du harik eta amaitzeko edo iraungitzeko arrazoiak gertatzen diren arte.

Eta adierazitako guztia onartzen dutela frogatzeko, biek izenpetzen dute dokumentu hau, bi aletan eta ondorio bakarrarekin, izenburuan adierazitako tokian eta egunean.

<p>ZARAUZKO UDALA</p>  <p>Juan Luis Ilarramendi Roteta Zarauzko Alkatea</p>	<p>GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA</p>  <p>Jon Peli Uriguen Ansola Landa Garapeneko eta Turismoko Departamentuko Diputatua</p>
--	---